



2020KO EKAINAREN 16AN
EGINDAKO EZOHICO OSOKO BILKURAREN AKTA.

Bilera mota: Udal Osoko Bilkura Berezia

Data: 2020-06-16

Ordua: Arratsaldeko 20:00tan

Lekua: Udaletxeko Areto Nagusia

Honen bitartez eta alkatearen aginduz, aipaturiko ordu eta lekuan egingo den Ezohiko Udal Osoko Bilkurarako deialdia luzatzen dizut.

EGUNEKO GAI ZERRENDA:

LEHENA.- 2020ko uztailaren 12an Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeetan mahaietan egongo diren kideak izendatzea.

BIGARRENA.- HAPOnen helburua eta irizpide berriak onartzeko proposamena.

HIRUGARRENA.- HAPOk garatuko duen ordenazioaren planoa onartzeko proposamena.

Elduain, Udaletxeko bilera aretoan, aurrez egindako deiari, 2020ko ekainaren 16an, arratsaldeko 20:00tan, Udalaren Batzar osoa biltzen da ezohiko saioan, behean aipatzen diren zinegotziak, Oihana Amundarain Zubillaga Alkatearen presidentziapean.

Zinegotziak:

- Eider Mugica Ormazabal (20:00)
- Leire Talavera Etxeberria (20:00)
- Joel Wepsiec Mariezcurrena (20:00)
- Alain Barandiaran Ayerza (20:00)

Bertan dago eta fede ematen du Udaleko idazkari - kontu-hartzaileak:

- Maria Pilar Garmendia Miguel

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, presidenteak, 20:00 ordu direnean, bilkura irekitzat ematen du eta gai-zerrendako puntuen azterketari ekiten da.



GAI ZERREDA:

LEHENENGO PUNTUA:

2020KO UZTAILAREN 12AN EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEETAN MAHAJETAN EGONGO DIREN KIDEAK IZENDATZEA.

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, eguneko gai-zerrendako puntu bakarrari ekin zaio, 2020ko uztailaren 12an egingo diren Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak direla-eta hauteskunde mahaietako partaideak aukeratzeko zozketari, hain zuzen ere, hauteskundeetako Erregimen Orokorreko Lege Organikoaren 26.4 artikulua xedatutakoaren arabera.

Horretarako prestatutako informatika-programa baten bidez egin da zozketa; Elduaingo hautesle zentsutik hartu dira datuak, Espainiako Estatistika Institutuak bidalitako datuetatik, hain zuzen.

Zozketaren ondoren, Elduaingo Udalerrian eratu den mahaietarako lehendakaria eta bokalak aukeratu dira, titular nahiz ordezkioak, eta horien datuak horretarako orrietan jaso dira. Hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa publikoa egiten da, ondorengo suertatuz:

CARGO EN LA MESA MAHAIKO KARGUA	1º APELLIDO 1. ABIZENA	2º APELLIDO 2. ABIZENA	NOMBRE IZENA	D.N.I. NAN	Nº ELECTOR HAUTESLE-ZK.			
TITULARES / TITULARRAK								
PRESIDENTE/A: D/D ^a MAHAIBURUA: Jn / And					U0099			
1º VOCAL: D/D ^a 1. MAHAIKIDEA: Jn / And					U0157			
2º VOCAL: D/D ^a 2. MAHAIKIDEA: Jn / And					U0007			
SUPLENTE / ORDEZKOAK								
1º DE PRESIDENTE/A: D/D ^a 1. MAHAIBURUARENA: Jn / And					U0119			
2º DE PRESIDENTE/A: D/D ^a 2. MAHAIBURUARENA: Jn / And					U0038			
1º DE 1º VOCAL: D/D ^a 1. MAHAIKIDEAREN 1. ORD.:Jn/And					U0070			
2º DE 1º VOCAL: D/D ^a 1. MAHAIKIDEAREN 2. ORD.:Jn/And		U0142						
1º DE 2º VOCAL: D/D ^a 2. MAHAIKIDEAREN 1. ORD.:Jn/And		U0111						
2º DE 2º VOCAL: D/D ^a 2. MAHAIKIDEAREN 2. ORD.:Jn/And		U0021						

BIGARREN PUNTUA:

HAPOREN HELBURUA ETA IRIZPIDE BERRIAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berriz aztertzeo aurrelaburpeneko kriterioak eta helburuak aurkeztu dituzte .

Osoko Bilkurak 2018ko uztailaren 4ean eginiko bileran erabaki zuen HAPO berriz aztertzeo aurrelaburpena jendaurrean jartzea bi hilabetez, bidezkoak iruditzen ziren iradokizunak eta alternatibak aurkezteko aukera



emateko.

Erabaki hura 2018ko uztailaren 20ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta iragarki-taulan ere egon zen 2018ko uztailaren 5etik.

Jendaurrean egon zen denboran, 4 idatzi aurkeztu ziren, iradokizunekin eta alternatibekin.

2018ko azaroaren 26an Zebra Lab Arquitecturak eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U. sinatu zuten txostenean, iradokizunen idatzi guztiak aztertu eta erantzun egin dira.

Txostenean, idatzi bakoitza aztertu da eta iradokizun eta alternatiba bakoitza ontzat eman da edo atzera bota da.

Bi mila eta hemezortziko abenduaren hamabian egindako Udal Batzarrak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berriz aztertzeko aurrelaburpeneko kriterioak eta helburuak, onartu zituen.

Udaleko Zerbitzu Teknikoek irismen-dokumentuaren ondoren, irizpideak eta helburuak aurkeztu dituzte .

Lurzoru eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko 90.4 artikulua hau xedatzen du: "Jendaurreko erakustaldiaren eta herritarren eta erakundearen parte-hartzearen emaitzak aztertuta, udal plan orokorra idazteko oinarriko irizpide eta helburuak zehaztuko ditu".

Komeni da gogoratzea, era berean, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretu bidez onartu zen hirigintza-plangintzari buruzko Erregelamenduko 125. artikuluko 2 eta 3. puntuek xedatzen dutena: "2.- Plana idazteko mandatua duten organismo edo udaleko zerbitzu teknikoek eta adituek aurkeztutako iradokizunak eta alternatibak aztertu eta plangintzako kriterio eta irtenbide orokorrak berrestea edo zuzentzea proposatuko dute. 3.- Plana prestatzeko ardura duen organismoak edo udalak dagokiona erabakiko du kriterio eta irtenbide orokorreari dagokienez, jendaurrean egon diren denboran jasotako emaitzak eta eginiko azterketa teknikoak kontuan hartuz, eta Plana kriterio eta irtenbide horien arabera prestatuko da."

Horrela, bada, hirigintzari buruzko legeriak udalari aitortzen dio irizpideak eta helburuak onartzeko eskumena, udaleko zein organori dagokion zehaztu gabe.

Osoko Bilkurari plangintzaren arloan espresuki aitortzen zaion eskumena 123. artikuluko 1. ataleko i) puntuan agertzen da: "Plangintza orokorrari hasierako onarpena ematea eta hirigintzari buruzko legeriak xedatzen dituen plangintzako planen eta gainerako tresnen udal-tramitazioari amaiera emateko onarpena ematea".

Lege-xedapenen azterketa osatzeko, 124. artikuluko f) atala hartu behar da kontutan. Hor esaten da alkatearen hondar-eskumenean artean daudela legeek eta Estatuko edo autonomia erkidegoetako legeriak espresuki udalei, eta ez beste inolako udal-organoei, aitortzen dizkien gainerako eskumenak.

Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen aplikazioa hedatzen badugu, Legearen beraren filosofia eta xedapenaren esanahia kontuan hartuz, uste dugu Osoko Bilkurari dagokiola behin betiko kriterioak eta helburuak onartzea.



Lehenik eta behin, Osoko Bilkurari dagokiolako behin betiko onespenak ematea eta, bilera honetan, Plan Orokorren oinarrian egongo diren behin betiko kriterioak eta helburuak onartuko dira eta funtsezko erabakiak hartuko dira plan horren edukiaren eta xedapenen inguruan.

Printzipio horiek balio juridiko garrantzitsua izango dute Planeko proposamenak eta xedapenak garatzerakoan.

Horregatik guztiagatik, dagokion akordioa hartzea proposatzen zaio Osoko Bilkurari.

Osoko Bilkurak gehiengo osoz erabaki du:

LEHENA.- Onartzea Hiri Antolamenduko Plan Orokorra berriz aztertzeko aurrelaburpeneko kriterioak eta helburuak, Zebra Lab Arquitecturak eta EKOS Estudios Ambientales, S.L.U enpresak iradokizunen inguruan eginiko balorazio-txostenera moldatuta.

BIGARRENA.- Idatziak iradokizunekin aurkeztu dituzten pertsoneri erantzutea, Udaleko Zerbitzu Teknikoen balorazio-txostenean adierazitakoaren kopia emanaz.

HIRUGARREN PUNTUA:

HAPOK GARATUKO DUEN ORDENAZIOAREN PLANOA ONARTZEKO PROPOSAMENA

Udaleko Zerbitzu Teknikoek Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak garatuko duen ordenazioaren planoak aurkeztu dute .

Eta, besterik gabe, bozketa egin da eta Udal Batzarrak ahobatez

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Onartzea HAPOk garatuko duen ordenazioaren planoak

Besterik gabe, 20:30ean, Presidentetzak batzarra amaitutzat jo du, eta akta hau egin dut, nik, idazkari honek, gertaturiko guztia zehatz jasota. Fede ematen dut

O.E.

Alkateak,

AMUNDAR
AIN
ZUBILLAGA
OIHANA -
OIHANA -
72481789A
72481789A

Firmado digitalmente por
AMUNDARAIN
ZUBILLAGA
OIHANA -
72481789A
Fecha: 2020.11.26
15:14:36 +01'00'

Udaleko idazkari - kontu-hartzailea,

MARIA PILAR
GARMENDIA
MIGUEL -
72574128C

Firmado digitalmente
por MARIA PILAR
GARMENDIA MIGUEL
- 72574128C
Fecha: 2020.11.26
17:14:38 +01'00'



ELDUAINGO UDALA
Udaletxea 1
20.493 Elduain
(Gipuzkoa)



2020ko ekainaren 16ko Ezhiko Bilkura

Oihana Amundarain Zubillaga,

Maria Pilar Garmendia Miguel

